

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskarabideak parte hartu du eskualdeko hizkuntzak garaiz ikasteak duen balioari buruzko nazioarteko biltzarrean

Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen (NPLD) esparruan egin da Valentzian

Ostirala, 2018.eko maiatzak 25

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, Valentzian parte hartu du eskualdeko hizkuntzak garaiz irakasteak eta ikasteak duen balioaren inguruan egin den nazioarteko biltzarrean, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen (NPLD) batzar orokorraren esparruan.



Mikel Arregi biltzarreko parte-hartzaileekin batera Valentzian.

Batzarrean izan dira Mikel

Arregi, Euskarabideako zuzendari kudeatzailea, eta Paula Kasares, Euskararen Plangintza eta Sustapen Zerbitzuko zuzendaria. Biltzarra Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sareak (NPLD) eta Valentziako Komunitateko Gobernuak antolatu dute elkarrekin; Nafarroako Gobernua Sare horretako kidea da.

Jardunaldian zehar, honako hauek ere parte hartu dute: Colin H. Williams, Cardiff-eko Unibertsitatekoa (Gales), hezkuntza eleaniztasunaren onurei buruzko hitzaldiarekin; Rubén Trenzano, Valentziako Gobernuakoa, jostailuaren industrian eskualdeko hizkuntzen edo eremu urriko hizkuntzen inguruko aurkezpenarekin, bereziki Valentziako kasua aipatuaz; Alex Riemersma, Frisiako Gobernuakoa (Holanda), bi- hiru hizkuntzako haurren jarrera, praktika eta lorpenei buruzko hitzaldiarekin; Empar Marco, Valentziako Hedabideen Sozietatekoa, komunikabideetako hizkuntza paisaiari eta hedabide publikoen rolari buruzko aurkezpenarekin; Bessie Dendrinis, Atenasko Unibertsitatekoa, haurrengan kultura aniztasunaren kontzientzia garatzearen inguruan; Xurxo Salgado, Compostelako Done Jakueko Unibertsitatekoa, sare sozial globaletako hizkuntza-dibertsitatearen inguruan; Paula Kasares, Euskarabideako Euskararen Plangintza eta Sustapen Zerbitzuko zuzendaria, haurren hizkuntza-sozializazioaren inguruan eta nola iritsi hizlari trebeak izater

a eremu urriko hizkuntzan; Iain Caimbeul, Hizkuntza eta Kultura gaelikoko Zentro Nazionalekoa; Lorea Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundikoa; eta Joaquim

Dolz, Ginebrako Unibertsitatekoa.

Biltzarraren helburua izan da gizarte eleanitzak modu eraginkorrean eraikitzeke elementuak partekatzea, kontuan hartuta hizkuntzak ez direla soilik komunikatzeko tresna, balio bat baizik.

NPLDeren Batzar Orokorra

Gaur izango da Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen (Network to Promote Linguistic Diversity NPLD) batzar orokorra. Nafarroako Gobernu Sare horretako kidea da 2015. urteaz geroztik, Euskarabidearen bitartez.

NPLDk Europako Batzordearekin, Parlamentuarekin eta Kontseiluarekin estuki egiten du lan, eta zubi-lana burutzen du hizkuntzaren sustapenean espezializatutako instituzioen eta eskualdeko departamentuen artean; azken horiek ere elkarren artean erlazionatzen dira jardunbide egokiak eta esperientzia arrakastatsuak partekatzeko helburuarekin.

NDLP sarean parte hartzen dute Europako hainbat hizkuntza minorizatuko ordezkari instituzionalek; tartean honako hauek aurkitzen dira: friulera, euskara, galegoa, kornubiera, korsikera, alsaziera, gaelera, eskoziera, frisiera, okzitaniera edo bretoiera. Gogoratu behar da Generalitatea ere sarean sartuta dagoela 2016ko maiatzaz geroztik.



Biltzarraren helburua gizarte eleanitza eraikitzea izan da.